

## TANBOLIÑEAN DANTZAN...

...*bajuen Gordobil, Otxandioko plazan tanboliña dabil.* Gure herrietako plazetan, ermita aurreko arboladoietan, hiru lau baserrietxetako auzunetan, etarteren baten edo korta bazterren baten lanak eta errezuak amaitu ostean, non ezta izan tanbolina edo panderoa edo koilare bi edo kainaberak edo anisbotila erdi betea edo mahai ertz bat *takatan-takatan-tan-tan-tan* erritmoan edo beste baten animoak biztu eta dantzariak *burua arin arin, oinak arinago* inguruak ipinteko? Agure zein zaparro, atso nahiz neskato, guraso eta batez ere neska-mutil sasoiko. Jaiak direla, auzolanak direla ...plazan tanbolina, txistu-tanbolina, baina eremu txikiagoetan *tilili ta talala kantu guztien ama da* eta perkusioaz lagundu eta gitarra-dultzina-musikitarra eta geroago *inpernuko hauspoa – kordeoia ta trikitia*, hara dantzariak.

Dantzariak. Dantzariak mutilak. Dantzariak neskak. Hamaika mila motibogatik, –sermoiak, herri agintarien bandoak...–, mutilek, gizonezkoek eduki dute protagonismoa. Ageriko protagonismo *nagusia*. Baina neskak, emakumeak, beti eta betidanik egon izan dira hor: dantzan, plazan dantzan. Mutilekin leian.

Ala mutil batek Aureskua egiterakoan nori eskaintzen zion, zeini emoten dio mokorkada-txapela-eskua? EMAKU-MEARI. Neskek, emakumeek Soka-dantza egiten zuten usu ez hain antzinako garaietan, nor ateratzen zuten, zein ateratzen dute, plazara? MUTILA. Eta ondorengo *Fandango, Arin-arin*(-bizkai-dantza folkloristentzat), *Biribilketa-ujujuetan* ez ete dabilta ar-emeak soka nahaste horretan?

Dantza dantza danetik bata eta bestea elkartu arazteko dela begitantzen zait. Arra eta emea, emea eta arra elkartu arazteko izan da eta da. Komunitate heterosexual batez dihardut. Gure *tradiziozko dantza zaharren* ostean etorri ziren *jazbana, tangoa, pasodoblea, baltzioa, chotisa ... agarraua ...* eta gaur eguneko *bakalaua* eta ... ez ete ziren, ez ete dira elkar eza-gutzeko, elkar ligatzeko motibo?


*Tanboliña* jotzen zan leku guztietan eratuten zirean Aurreku luze-luzeak... Alferrik dago bada / herrian txanbolin, / Mari Mistela *dabil* / guzien danbolin.

Gorago esan den lez, esaldi hau duela mende bat pasautxo Mundakako Etxeitak idatzita itxi zigun. Ordurako mutilek patrimonializatu zituzten *Tradizio santuaren* izenean dantzadoinu zahar gehienak. Ez alperrik Euskal Herriak *Modernitatearen* kontrako, *Tradizioaren* aldeko bi gerrate odoltsu bizi izan zituen. *Karlistadak*. Herritar arruntak analfabetoak gehienak, emakumeak batez ere. Erljioaren pisu astuna eta beltza, abade, fraile, jesuitak gurutzearen izenean arima garbiaren, orban bakoaren alde, zein da modernitateaz iluna eta katastrofea jadetsiko zirelakoan. Herri-agintariak eta elizgizonak, elizgizonak eta herri-agintariak arau eta mandamendu estuak ezarri eta bete araziz. Txistu-danbolina bera debekatuz, zelan ez! Sokan eskutik heltzea... *pañueloa* atera behar zen, hori zen *garbia*. *Avemarietarako* batere neska duinak etxeratzeko ordua.

Kordeoia, Trikitia: *inpernuko hauspoa*, 1940.hamarkadan oraindik pekaturako bidea zenez, edo ezin zen jo edo jotzaila ezin zen herriko elizara sartu, ezta paskoazkoa egiteko ere, eta hau gure komunidadetxoetan, gure gizartean oso larria zen. Begira gaur: *Trikitia* ezer bada, zerbait *geure geurea* da, *euskalduna, betikoa*, txistua eta tanbolina baino lehenagokoa, *betikoa*, eta hara: hogeigarren mende hasierakoa dugu. Gaur goizaldekoa!


Gure *Ezpata dantzak*, *Dantzari dantzak* ere, asmorik onenaz baina, nago aldats beheranzko bidea hartu zuela. XX.mende haseran Eusko Alderdi Jeltzaleak, 1891ko Ijorretako jaietan Sabin Arana-Goiri Maisuari oso gustatu eta, *DANTZA NAZIONAL* gisara hedatu zuen zazpi Euskal Herrietan, *Ereserkija* bera buru zela. Jeltzaleen adiskideak gehitu ahala dantzari-dantza egiten zen Berrizen, Ijorretan ... baina Zallan, Usurbilen, Leitzan, Kanpezun, Itsasun, Baigorriin, Maulen ... asmorik onenaz. Galzorian jarri ziren tokian tokiko Soka-dantzak, Dantza-Sokak, Azeri dantzak, Larrain dantzak, Ingurutxoak, Korpus dantzak, Mutil dantzak, Uztai dantzak, Zinta dantzak, Muttikoak...

Arauk eta pekatuak kinka hestuan jarri zigun Durangerriko dantza folklorea. Lehenago andrazkoek ere egiten bazituzten *Erregelak*, *Banangoak*...1936.ko gerra ostean ahanzturaren hodeian galdu ziren eta gaizki ikusiak ziren halango neska-banderak. Bai mutilek *sokara* aterako zituzten baina kito! Dantzarako grina, gogoia ezta alde bakarrekoa ostera. Gerra irabazle *benetako Tradizioaren* eusle sutsuek *bilanderak* zituzten eta *Sección Femeninatik* igan ezkerro herriko *betiko* ohitura zaharren hagan eskegita dantzatzin ziren. Hara atea erdi itxita, erdi *zabalik!*



Mutilak Dantzari-dantzan, IEUP! Hemen gara! eta neskak ba... Uztaiak, Paseo San Roke, Sagardantza, Sardinerita... sueltoan, ... 1967an Gerediaga Elkartearen eskutik *Ezpata-dantzari* eguna antolatu zen Ijorretan, bere zahar esentzian berreskuratu guran, geroago *Erregelen* sariketak etorri ziren, asmo berberaz. 1970-71an *Itñaki Irigoien*en esanetik Durango-ko Euskal Jaietan, 1886an, *Gorulariak*, *Uztai-dantza (arkuak)* eta *Zinta-dantza-Domingillua* egin zituzten neska mutilak. Artxiboa, lekukoak, testiguak edo hauen senitartekoak ... Jose Jabier Abasolok, *Tiliñok*, gogotsu eta temati jardun zuen honetan. Datuak, argazkiak, paper solte kolorgeak, tresnak, jantziak, musikak ... taldekideak ere, neska eta mutil, pozarren ilunaren hondoko argi printza susma zitekeelako.

*Gorulariak-hilanderak* antzez-kantuzko eszenatxo bat da, *haria* zelan egin, jaiotarako beren beregi Peru Abarkaren *linoaren penak* abestuaz, Zubiaurre musika-Maixu garaitarraren melodiatsuaz.



Donostiako udal Aretoan aurkeztu zen lehenengo aldiz 1973.ko maiatzean.

Hortik aitzina dantzari nagusien esanak, artxiboetako oharrak, Fray Añibarro, Beitia-Etxezarreta, Humbolt, Juan Antonio Mogel, Iztueta, Fray Bartolome, Azkue, A.Donostia, Barandiaran, Egiguren, Irigoien, Karmele Goñi ... denoi entzun, ikasi eta urrats errimeak emonez, aurrera!

*Dabilen harriari goro*diorik ez eta ibiliak berak ohi dakar zerbait berri edo agian zerbait aspaldiko, hauts astindu bat emonez, zahar berritzea eta dotoretzea. Halango ikoti-salto batean gure arteko Jon Gergori Irazabal, *Katak*, paper historikoetan eta beste mila ixtorietan iaioak, *Katak* 1837ko karlisten gerrate sasoiko dokumentu bat dakarsku ingelesez, zeinetan Edward Bell Stephens periodistak urte horretako San Migel jai eguneko kronika idatzirik utzi zigun eta bertan kontatzen den zelan Don Carlos erregea eta bere gorte-segizioa arratsaldez Durangotik Ijorretara hurreratu ziren eta plazan, Ijorretako plazan, zelan ikusi zuten emakume gaztez osoturiko ilara luze bat, denak erreskadan, eskuz esku helduta, eta aurrenlariak dantzaz –Aureskua– eta ondoren Sokako azkenlariak –Atzeskua–. Hara! Behar genuen zihurtagiria, zertifikatua! Ijorretan neskek-emakumeek ere Erregelak dantzatzan zituzten! Ingelesez idatzirik dago... letrapequeñan eta kolkorako esan behar dut gure nagusi zaharren ahoan gerra aurretik hemen ere sasoiko neskek urliak eta berendiak egiten zutela, gure *euskal literaturaren historian* behin eta barriro datozela gure fraydeen aipua gai honetaz ...baina erbesteko hizkuntzetatik letorkeenak emon ohi digu sinisgarritasuna, kredibilitatea...

*Kataren* bidez eskuraturiko barri honek jauzi, ikoti lorios bat emotera garioaz eta sasoiko *plaza-neskak* prestatzen dira San Sebastian-Erregela, *Soka-dantza* plazaratzeko. Dantza erakusle, trebatze zereginetan Joseba Agirrek, *Iketzak*, eta nik

neuk jardun genduen. 1995a da, irailean San Migel arratsaldea. Egun sinalia! Zortzi neska gazte, erreskadan, eskuz esku, *Erregela zabarra* dantzan. *Txistu-tanboliña eta kantua, jagia, bihorkadia, grabilletia ta atzerakadia...*

*Humboldt* doixtarrak duela berrehun urte luze, 1802an, hemendik ibili zenean San Sebastian *antzinakoek dantzatzen zutela, baina gaur horren hondakinen bat edo...* batu zuen. *Aita Donostia* musikari bikaina izan zen jarri gintuena paperapunte hondakin(?) hauen arrastoan:

querido decir con esto, que sean las unicas: se conocen desde epoca remotisima [otras] muchas baxo deno(mi) naciones particulares [asi la regla del] quarenta [de?] Sn. Sebastian, Sto..... [Chirulinus] etc. De todas ellas solo la..... lugar, quando se trata del ac[ento]..... [vasconga] ..... pueblos vecinos imitadas [de] ellos, co..... tradicion si hemos..... todas ellas, es por que... [provablemente estas]..... mismas circunstancias sino por..... [acion] que le han dado con el.....

Todas estas canciones [?] particulares tienen un caracter igual: son aires sin modulaciones ni variedad y no guardan orden fixo [en] la extension de periodos: parece que han sido hechas, mas a imitacion de otras, y cada una para un caso particular. Antiguamente se bailaban [como en?] el dia, estan quasi absolutamente olvidadas [exceptuan?]

**ZORZICO ANTIGUO LLAMADO SN. SEBASTIAN**  
[Papeles de Humboldt, sec. 3ª, 18]

The image shows a musical score for a piece titled 'ZORZICO ANTIGUO LLAMADO SN. SEBASTIAN'. It is in 2/4 time and consists of four staves of music. The first staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The second staff has a key signature change to two sharps (F# and C#) and includes repeat signs labeled 'I' and 'II'. The third staff continues with the two-sharp key signature. The fourth staff is marked 'sic' and has a key signature change to one sharp (F#). The music is primarily composed of eighth and sixteenth notes.

40 Cancionero popular vasco (ed. manual) 291


The image shows a musical score for a piece from the 'Cancionero popular vasco' collection. It is in 2/4 time and consists of five staves of music. The key signature is one sharp (F#). The lyrics are in Basque and are written below the notes. The music is primarily composed of eighth and sixteenth notes.

a - le - ge re - men - te - an e - gon go - ra - den  
ar - te - an le - ku bat - e - an pi - txa - fa al - de -  
an nor - din be - ar ko yok gu - re fi - nak os - pi -  
tal - e - an au - fe - ra San Se - bas - ti - an .  
O - rai - dentza gai - te - an i - a go - az er - di - an aurf - e -

*Resu M<sup>a</sup> Azkue*, hizkuntzalari eta folklorista erraldoiak ere, Bizkaiko hainbat herritan jaso, batu eta argitara emon zigun Arduak parau gaitu ...San Sebastian dantza-kantu luzea

Bada, hara, Durangerrian San Sebastian-*Erregelak* bizirik diraue, bai mutilen zein nesken oinetan. Humboldttek *estan quasi absolutamente olvidadas* bere paperetan bazioen ere,

non eta Justo Uribarrena Erdoizaren, Ijorretako alkate izanda-koaren, keetutako paperen artetik eskuratzeko modua izan dugu gure aintzinateko dantza zahar hau:



Geroagotara, horra *Tiliñok* Orobioko Juan Gandiaga, *Ju-nito Sesterogandik* jaso zituen 1971an Erregelak kantuz eta non **Atzeskua**: Ay Auxe dok San Sebastian... hasten den.

**ATZESKU**

**Allegro**

(Ay) Au-ax dok San Sebastian - an - gu-ti - bi dantza gal-ti - an, I - a ba-da go - la - zen

er - di - an su - re - re. Dantza da - bi - le - no - rek oi - tok di - tu - zek e - zi - nek baldinetz - gal -

**tempo** **rall.** **tempo**

tu - zek oi - tok a - ri - nek es - te - ku - si - den ba - de (2) o - rek po - li - bi yok dan - rre - 1961

**AURESKUKO EREGELAK BERTSOETAN**

<b>LENENGO ZATUA</b>	<b>BIGAREN ZATUA</b>
1. <sup>a</sup> Ardaitzak para gaita dantari bai eta coplari, estakitzak onaitzazki egari eta orain zerbik.	0. <sup>a</sup> Au da la San Sebastian orain dantza gaitin je guz orojan infera. 10. <sup>a</sup> Dantza orik



Garai beretsuan, laupabost urte lehenago nik neuk ere Mendatako Albizen ezagutu nuen *Anbrosio Aparia, tanboliñari*, bere kabuz argitaratutako kantu-paperean *AURRESKUKO EREGELAK BERTSOETAN*, eta hor ere Au da ta San sebastian...

Honen ostean, aguazil, abade, erlijio, tradizio eta esamesen iraztontzitik irazi ondoren ibilian, pausoz pauso, aurrera, aitzina, urrats bat eta bestea, eta bi aurrera, bidea eginez etorri dira *Soka-dantza-Erregelak*, eta astiro baina errime, firme, ustez mutilen patrimonioa zen *Dantzari-dantzan* neskak ere parte hartu izatera.

*eta guzti hau holan bazan edo ezpazan,  
hara Ijorretako plazan,  
neska mutilak olgantzan,  
... jarraitu daiala tanboliñak jantzan!*

*Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloak*

2020ko abenduaren 6an, San Nikolas.

Orixeren egunean, beragaz batera:

*“zatozkida goiz arnas eta egin nerekin lan / Herri baten arnasa  
mamitu dezadan /  
geroak esan beza Herri bat izan zan / edo ta bats emaiogun hontan  
iraun dezan”*